

GAI - JARTZAI LEAREN ESKULIBURUA

Egileak:

Nikolas Zeberio, Xabino San Sebastian eta Inazio Usarralde.

Laxaro Azkune, Manu Olano, Ainhoa Agirreazaldegia, Aitor Mendiluze, Josu Goikoetxea, Asier Ibaibarriaga, Unai Elizasu eta Saroi Jauregi eskertu nahi ditugu beraien ekarpenekin lan hau aberasteagatik.

AURKIBIDEA

HITZAURREA	5
GOGOETA ETA ORIENTABIDEAK	7-36
1.- SARRERA	7
2.- HISTORIA LABURRA	7
2.1.- Aspaldikoaz dakiguna (edo ez dakiguna).....	7
2.2.- Hasierak (1935)	8
2.3.- Formatuaren onarpena (1960-1980).....	9
2.4.- Metamorfosia (1980-...).....	10
3.- GAI-JARTZAILEA: SORTZAILEA	13
4.- GAI-JARTZAILEA, GAIFEMAILEA, AURKEZLEA	15
4.1.- Definizioak	15
4.2.- Profilak	15
5.- GAIK	17
5.1.- Funtsean, zer dago gai baten atzean?	17
5.2.- Hasierako puntuak	21
5.3.- Puntutan aritzeko gaiak	22
6.- GAI-JARTZAILETZA	23
6.1.- Jaialdietan.....	23
6.2.- Lagunarteko saioetan.....	27
6.3.- Txapelketetan	27
6.4.- Bertso-trama.....	31
6.5.- Libreko saioak eta ekitaldi bereziak.....	34
GAIK SORTZEKO ITURRIAK	37-57
BIBLIOGRAFIA	60

**IRAKURTZEA KOMENI DEN
HITZAURREA**

Lehenago eta oraingo bertsolariei buruz liburu bilduma zabala dugu. Bertsoa egiteko teknikari buruz ere baditugu gidaliburu ugari. Doinutegi mardul askoa modu txukunean bildua dago. Epailletza zereginari buruz badira liburuxkak; edota, bestela txapelketa nagusiari buruzko liburuen hasieran dauzkagu jardun horretan erabiltzen dituzten irizpideak eta jarraibideak. Azken boladan, bertsolaritzari buruzko tesiak eta ikerketak agertzen ari zaizkigu. Eta gai-jartzailtzaz zer dugu? Artikulu ugari han-hemenka barreiatuta bai, baina falta zitzaigun halako lan bat, non, batetik, orain arte argitaratutakoarekin sintesi moduko bat egingo zuen eta, bestetik, gaur egun dabilzan gai-jartzaileek darabiltzaten lan egiteko moldeak bateratu eta modu txukun batean azalduko zituen.

Eskuartean duzun lan hau hutsune hori betetzera dator hain zuzen ere, bere xumean eta modurik apalenean. Argitaratutako materiala aztertu eta laburtu, urte mordoska gai-jartzaile eginkizunetan dabilzanen esperientzia aberatsa erantsi eta, azkenik, gaiak jartzen hasi behar duenak kontuan eduki behar dituen ideia batzuk aurkituko ditu irakurleak lan honetan. Argi gera bedi, aldi berean, hemen plazaratzen ditugun gogoetak eztabaidagarriak izan daitezkeela (eta hala izango direla ziur gaudel!). Ez litzateke txarra, bere horretan. Eginkizun honetaz jendea arduratu egiten dela esan nahiko bailuke. Funtsean, hemen ez dugu ezarri nahi izan, inondik inora, gai-jartzaile batek nahitaez izan behar duen jokabidea. Gehienera ere, ausartuko ginatke esatera, gai-jartzaile batek inoiz egin beharko ez lukeena topatuko duela lan honetan. Hori bai, saiatu gara ahalik eta argien adierazten. Irakurle, zure esku dago asmatu dugun edo ez esatea.

Hau honela, iruditzen zaigu material oso baliagarria izan daitekeela bertso eskoletan gaiak jartzeaz arduratzen direnentzat; eta are gehiago, honetan hasi behar/nahi duenarentzat. Horrek ildo batzuk aurkituko ditu nondik nora jo dezakeen. Azken hitza beti berea izango dela jakinda. Izan ere, gai-jartzailea bera da era askotako frogak eginez zerk funtzionatzen duen konturatuko dena. Eta halaber, funtzionatzen duen horrek bera zein neurritan asebetetzen duen ere gai-jartzailea konturatuko da esperientziarekin.

Azkenik deia zabaldu nahi genieke ikertzaileei. Lan hau, orain arte gai-jartzailtzaz argitaratu dena eta ikertzeko dagoen arteko zubi gisa ikusten dugu. Berau osatzerakoan konturatu baikara esparru honetan bertan zenbat legokeen ikertzeko. Tipularena gogora ekarriz, guk azala zuritu besterik ez dugu egingo oraingoz; azken urteotan gai-jartze lanean aritu garenok garatutako ideia, teoria eta irizpideen sailkapen honek, gure uste apalean, teorizazio sakonagoen hasiera izan beharko luke. Beraz, izan dadila lan hau orain arte idatzi denaren eta ikertuko denaren bitarteko zubi eta lan mardulagoen eragile.

Orain, bai, jarrai dezakezu aurrera zure irakurketarekin nahi duzun lekutik eta gogoak agintzen dizun eran.

*Inazio Usarralde
Xabino San Sebastian
Nikolas Zeberio*

1.- Sarrera

Alboko esaldia¹ aitzakiatzat hartuta, eta behin bada ere, gaia geure buruari jarriz hasi dugu jarduna, hitz errimatuan ez bada ere, bai ederki neurtuta, alajaina!

“Ibiltari, biderik ez dago, bidea ekinaren ekinez egiten da...” idatzi zuen idazleak eta hori ere kontuan hartu dugu, ea guk orain arte ibilitakoarekin laguntzen diogun hasi berriari, behintzat.

Ezaguerearen Kudeaketaz gero eta gehiago hitz egiten den garai hauetan, sakabanatuta darabilgun jakintza (?) apurra metatzea eta atzetik datozenei gauzak errazten laguntzea da lan honen lehen helburua. Guri dagokigunez, bertsolaritzan pixkanaka-pixkanaka bere lekua egiten joan den gai-jartzailearen egitekoan, ezaugarrietan eta egokitasunean jarriko dugu arreta: zer da? Zeintzuk dira bere lan esparruak? Nola ekin hauetako bakoitzean? Zein irizpideetan oinarritu?

2.- Historia laburra.

Lehen-lehenik, gaia behar bezala kokatzeko asmoz, labur-labur, berriro dezagun bertsolaritzaren ibilbidearen historia, hanka punttetan pasatuz besterik ez bada ere, eta nabarmendu ditzagun zenbait mugarri.

2.1.- Aspaldikoaz dakiguna (edo ez dakiguna):

Hogeigarren mendera arte ez dugu egun gai-jartzaile gisara ezagutzen dugunaren arrastorik. Gutxi da garai haietako bat-bateko bertsogintzaz dakiguna. Ahoz aho helarazitako testigantzak jaso zituztenei zor diegu dakigun apurra. Bertsolariak zertaz edo zeri kantatzen ote zuen edo zion? Nork aginduta? Beren barruaren aginduari jarraituz ariko zen askotan. Jakina da, ordea, bertsopaper askok beste baten agindua dutela iturburu. Baina bertsolariak bat-batean ari zirelarik ere, izango zen "kanta iezaioak halakoari halakoa" edo antzeko zerbait esango zienik. Eta ez al da hori bera gaurko gai-jartzaileek egiten dutena?

XV eta XVI. mendeak. Gurera iritsi diren erromantzeek momentuko gertakizunak dituzte gaitzat, bi baserriren arteko haserreak, amodioaren gazi-gozaok, garaiko gudak edo abesti erlijiosoak. Beotibarko gudua, Bereterretxeren kantoria eta Alostorrea kasu.

XVII. mendea. Laster jarri zizkieten hegoak irudimenari eta gertaeretatik asmakizunetara pasatu ziren. Agertzen ziren lekuak edo pertsonaiak generikoak ziren, partikularrak izan beharrean. Batik bat eduki lirikoari ematen zitzaion garrantzia, espazio eta denboraren deskripzioari eman ordez. Brodatzen ari nintzen, Goizian goizik...

¹ Zer daki arrainak bere bizi guztian murgilduta dabilen urez ... (A. Einstein)

XVIII. Mendearen lehen erdia. Bertsorearen eta olerkiaren lirikotasunaren gailurra hemen aurkituko dugu. Behin betikoz narrazioa ahaztu eta guztiz lirikora jausi zen, irudi literarioak eta elkarriketak indartuz. Amodioa da gehien errepikatzen zen gaia . Txori erretrinu, Eijerra zira, Maitia non zira? Iparraldeak utzi zuen uztarik onena.

1750-1839. Garai hau Fernando Amezketarraren aroa izenda genezake. Baserri eta artzaintza giroko gaiak erabiltzen zituzten batik bat, eta bertsolarien arteko desafioak gailentzen ziren.

1839-1876. Karlituden tenorea, Lekuonaren esanetan, bertsolaritzaren urrezko aroa. Garai honetakoak ziren: Xenpelar, Bilintx, Iparragirre, Etxahun eta Bordel. Laborantzako gaietatik industria eta ferrokarrilarekin zerikusia duten gaien trantsizioa egin zen. Lehenengo aldiz, bertso idatzia agertzen hasi zen, eta horrekin, hizkuntzaren aberastasuna loratzen...

1876-1935. Besteak beste, Txirrita, Pedro Mari Otaño, Kepa Enbeita... Foruen galera eta gerra zibilaren garaiak ziren eta, batez ere, abertzaletasuna eta euskara ziren bertsotarako gai. Hala ere, adar-jotze eta ironia ukituko gaiak ez ziren falta, Txirritarenak arrunt ezagunak dira eta Xenpelarrenak edo Bilintxenak zer esanik ez.

2.2.- Hasierak (1935): Bat-bateko bertsogintzaren eszena aldaketa eta gai-jartzailearen agertzea

Dakigunez, "Aitzol" izan zen lehenengoetako gai-jartzailea 1935ean jokatu zen "bertso gudu" deitutako hartan; gaur egun gai-jartzailearen figura ezagutzen dugun bezala behinik behin, hau da, gaia aurrez pentsatu, landu, eta jendaurrean bertsolariari aurkezten diona. Orduan, gaia bertsotan jartzen omen zen, hurrengo urtean bertan treintaseisean jokatu zen txapelketan Basarrik egin omen zuen bezala, esaterako. Gainera, kasu honetan gai-jartzaileak bertsolari izan behar zuen; gaur egun, ordea, hori ez da betebeharreko baldintza. Egun, oso kontatuetan ez bada, gai-emailea ez da izaten beste bertsolari bat eta, hala izanik ere, ez du bertsotan egiten bere lana. Esan genezake garai honetan hasi zela gai-jartzailearen metamorfosia, eta hauek, nolabait ere, trantsizio garaiak izan zirela. Gaia formulatzeko erak oso bestelakoa izan behar zuen, beti ere, gaiaren azalpenak mugatuagoa beharko zuelarik, hitz neurtuan ari zirenez gero.

Itxura guztien arabera, txapelketarako asmatu zen langintza hau². Gai-jartzailetza, ofizialki, txapelketa bat eratzeko sortu zen, eta gerora ere, denbora luzean, plazan kantatzen zuten bertsolariak gai librean arituko ziren batik bat.

Beraz, aurrerantzean oholza gainean denek ez dute inprobisatuko; batek, behinik behin, etxeko lanak eginda eramango ditu, eta aurrez pentsatu edo idatzitakoarekin ekingo dio jardunari. Asmatu edo ez hori beste upel bateko sagardoa da.

² *Gai-jartzea txapelketarako asmatu zen, bertsolariak neurtzeko nola-halako proba konbentzionalak behar baitziren. Baina, ez noski txapelketarako bakarrik. Bat-bateko bertsolaritzaren ibilera, duela urte gutxi arte, librean izan da. Adinean aurrera samar goazen bertsolari guztiok ezagutu dugu aro hori, non ia beti librean jarduten ginen, gai-jartzailedun saioak salbuespenak zirela, baldin baziren.*

(X. Amuritz, *BERTSOLARI 18*, 1995.)

2.3.- Formatuaren onarpena (1967-1980). 1960-1967ko txapelketak eta gai-jartzailearen leku-hartzea

Atzera begira jarriz gero, gai honetaz ez duzu aurkituko hautsa asko harrotuko duen idatzi askorik, testimonio hutsetik at. Bestalde, bertsolaritzaren historiak Erdi Aroko garaia, XIV – XV. mendeetara eramaten baldin bagaitu ere (ETOR, Bertsolaritzaren Historia), gai-jartzailearen ibilbidea askoz ere laburragoa dela argi gelditu da goraxeago esandakoarekin.

Gerra ondorenean, isilune luze bat pasatu eta gero, bertsolariak berriro hasi ziren plazarik plaza kantatzen. Gai librean aritzen ziren, gainera, Basarri, Uztapide, Zepai, Txapel... Baina, bestalde, garai haietako bertsolari jardunaldiak festa barruko egitarau barruan izaten zirenez, gehienez urtean behin esan nahi da, herrira iritsi orduko jendez inguratuta aurkitzen ziren, eta hamaitakoa egin bitartean urtean zehar gertatutako anekdota bitxi guztiez informatuko zituzten. Honekin, herriarekin lotzen zituen zilbor-hestea sortua zeukaten; gai-jartzailerik gabe bai, baina herriko kontuez majo kargatuta...

Saioa borobiltzeko kontu orokorragoak aipatuko zituzten, ezin baita ahaztu garai honetan bertsolariak mezulariaren/informatzailearen rola ere jokatu zuela nolabait ere. Eta bukatzeko, bai elkarri edo bai herriko norbaiti adarra jotzen arituz gero, besteren beharrik ez zegoen alajaina!

Gauzak horrela izanik, zenbat plazatan kantatuko ote zuten Uztapidek edo Basarrik urtean? A! Hori bai, kasu honetan bertsolariak erabakitzen zuen zein erregistro erabili eta noiz; gai-emailea mikrofonoan dagoenean, aldiz, honek hartuko ditu erabaki horiek.

Baina denbora aurrera joan ala, teknologia aurrerapenak batetik, gerra osteko diktadurarekiko jarrera aldaketa bestetik, bertsolaritzaren eremua zabaltzen eta bere eragina indartzen joan zen berriro.

Klabe asko ematen dizkigu Amuritzak³ pasarte honetan. Amuritzak aipatutako arrazoi hauek eta hirurogeiko hamarkadako txapelketek, guztiz sendotu zuten 1935-36ko haietan egindako saiakera. Txapelketen beraien premiei erantzuteko ez ezik bertsolaritzari garai honetan irekitzen ari zitzaizkion esparru berriak bereganatzeko balioko zuen formatuak.

2.4.- Metamorfosia (1980-...)

1980ko Txapelketa Nagusia bertsogintzaren mugarri berri bat izan zen, jarraian etorriko ziren urrats andana baten lehena. Hirurogeiko hamarkadan sendotutako gai-jartzailearen formatu honek, bilakaera izugarria ezagutu du hogeigarren mendeko bi azken hamarkadetan. Arrakastaren aurrera igota, espazio berriak irabazi ditu bertsolaritzak, eta

³ *Denbora laburrean panorama erabat aldatu zen. Ibilgailuekin batera, motorrak eta lehenengo automobilak, saioak asko gehitu ziren, hirurogei inguruko txapelketekin hasita batez ere. Bertsolaria gehienik bere esparru ezagunetik kanpora zebilen. Eta horrez gainera, eta batez ere, beste era bateko gaien eskea zetorren. Bertsolariak nondik atera behar zuen ezagutzen ez zituen plazetan eta ohiturarik ez zegoen, edo haien berririk jakin ere ez zekien gaietan aritzeko materiala? Gai-jartzaileak emango zion hori. Horrela disoziazio bat sortzen da: batak gaia jartzen du, besteak gaia janzten du. Batak argumentua dakar, besteak forma eta edukia damaio. (X. Amuritzak, BERTSOLARI 18, 1995.)*

jauzi horretan, gai-jartzailea izan da behin baino gehiagotan, ohiko formatuari muzin egin gabe, esperimazioaren zama eta ardura hartu behar izan duena antolatzailearen zerbait berriaren eskaerari erantzun nahian: gaia emateko formula berriak, diziplina arteko saioak, egitura berriak... Txapelketen iraunkortasunak, irizpideak ezarri beharra ekarri du berekin. Hori dela-eta, bere garrantzia eman behar zaio gai-jartzaileen lanari ere egungo bertsogintzaren garapenaz hitz egiten denean. Definitzen joan da jarduna⁴, eta zorrozten eskakizunak. Ardura dakar horrek, eta bere baitan irizpide premia. Horren lekuko da lan hau berau.

Gure ustez, gai-jartzailearen presentzia bilakaera natural baten ondorio da, lehenago metamorfosia deitutakoa. Gai-jartzailea, bertsolaritzak sagardotegietatik antzokietara jauzi egin zuenean bereganatu zuen "gonbidatu" bat dela esango genuke. Ikus-entzunezko formatu jakin bati erantzuteko agian, edo protokolo minimo baten baldintzei jarraitzeko. Auskalo! Kontua da, eragin nabarmena izan duela honek bertsolaritzaren eta bertsogintzaren azken lau hamarkadetako bilakaeran. Bertsolaria gai-jartzaileak gabe suertatzen zenean, berak gaia sumatu, asmatu eta bertsoz bertso azaltzean, bi edo hiru bertso lasai ederrean botako zituen gaia zentratzeko, eta hartara, entzuleak ere, zertaz aritu behar zuen ohartarazteko. Justu-justu gaur egun gai-jartzaileak egoera jakin batean bi bertsolariak ipini eta hauek kantatuko dituzten bertso kopuru bera. Beraz, gaurko bertsolariak hiru bertsoetara moldatuko du, gehienetan, esan nahi duena eta honek, diskurtsoaren egituraketa ere ukitu egiten du, bertsoak pisu espezifiko handiagoa hartzen baitu. Nolabait esateko, beteagoa edo trinkoagoa izan behar luke, eta da, gaurko bertsogintza, kantitatean ez baina kalitatean oinarritua baitago.

Dena dela, gai-jartzaileak azkeneko hogeita hamar bat urte hauetan plazetan presentzia nabarmena izan duela begien bistakoa da⁵. Eta bertsolariak berak ere gero eta gehiago ohitu direla horretara, zer esanik ez! Entzuleria ere aldatu egin da: garai batean homogeneousagoa zen gaur baino. Gaur entzule azpitalde ezberdinak egin ditzakegu edozein saiotan: helduak / gazteak; langileak / bulegariak; exekutiboak / baserritarrak edo arrantzaleak... Eta ikasketadunak gehienak.

Betidanik entzun izan ditugu gai-jartzaile figuraren aldeko nahiz aurkako iritziak. Halere, ez da lan honetan eztabaidatu nahi den puntua, gure hipotesia gai-jartzailearen egokitasunetik hegaturakoa da⁶.

⁴ *Gai libreko jardunak izaten dira gehienetan bertso-afariak, jardun luzeak eta gaiak bertsolariak berak topatu beharrekoak. Kontuan harturik egungo bertsolaria intentsitatean ohitua eta hezia dela, ez du garai batekoak bezain erraz tenporizatzen, denborari eusten. Herria goratuz 10 bertso bota beharrean 2 edo 3tan egingo du konplimenduekikoa. Apaiza tentatzen hasita ez da dozena bat bertso botatzera iritsiko.*

Horrek zer esan nahi du? Denbora eta tokia nahikoa izaten duela esperimendu berrietarako. Umore-bide berriak saiatzea, bertsolaritzari buruzko bertsolaritza lantzea, doinuen probak egitea... dira horrelakoetan egin daitezkeen eta egiten ez ditugun zenbait proba. (A. Egaña, JAKIN 75, 1993)

⁵ *Gai-jartzaileak erruz ugaltu dira bertso saioetan. Agian txapelketako sistemaren imitazioz, molde bereko saioak antolatzen omen dira bazter guztietan, bestelako formulak galtzeko arrisku eta guzti. Nagusitu den molde horretan gai-jartzaileak duen gehiegizko presentzia batek baino gehiagok salatu du." (J.M. Torrealdai, JAKIN 44, 1987)*

⁶ *Gaur gaiak jarrita kantatzeko eredia gehitu egin da. Txapelketen ondorio txarretariko bat da hori. Txapelketan gaiak jarrita bere zentzua dauka, emozioa eta interesa gaietan baino gehiago*

Inoiz edo behin esan izan dugu saio guztia inprobisatzea izango litzatekeela politena, baina baita arriskutsuena ere. Ez, ez! Ez legoke ehuneko ehun inprobisatu beharrik, buruan gai zerranda eraman eta oholza gainean erabaki zer, zeini eta noiz edo nola jarri. Baina nor ausartzen da?

Noiz edo noiz mota honetako saioren bat ikusi dugu, baina gainontzekoek edo gehienek jaialdia ondo taxututa eramango dute deitutako lekura. Ez da ahaztu behar jendaurreko ekitaldi bat dela, eta oholza gainetik denok lan ona egindako itxurarekin jaitsi nahi izaten dugula.

Beraz, aurrera begira, hurrengo galdera hauxe izango litzake: zein da gai-jartzailearen profil ideala?⁷ Edo zein da bere kompetentzien mapa? Edo, eskola hipotetiko batean, zer gaitasun garatu beharko litzake ?

3.- Gai-jartzailea: sortzailea⁸

Ikusten ari garen bezala, gai-jartze eginkizuna zehaztea ez da batere erraza. Zenbat buru, hainbat aburu esan genezake. Halere, urteetako esperientziak erakutsi digunaren arabera, zenbait ideia zehatz plazaratuko ditugu gogoetarako.

Sortzailea

Bertsogintzan sortzaile nagusi bat dugu eta hori bertsolaria da, eta hala behar du, gainera. Baina, bertsolariarekin batera, egungo bertsogintzan bada beste sortzaile bat: gai-jartzailea. Gaur egun egiten diren bertso-jaialdietan esaguzue, gairik gabe zer egin dezaketen? Edozein delarik ere, gaur gaurkoz, bertsolaria hala nolako gairen bat jarrita kantatzen ohituta dago. Baina inor gutxik daki bertsolariari gaiak jartzeak zer lan duen; zer sormen lan duen, alegia.

Aipatutako sormen lan honek, hau da, gai-jartzeak, bakarkako lanean du abiapuntua⁹. Horretaz gain, gaur egungo plaza saioetako martxa ikusirik, jaialdiaren ardura maila handi

norgehiagoketan dagoelako. Txapelketak gaietatik aparte dauka jendearengan arreta sortzeko gantxoa. Eredu hori gero saio guztietara eramanez, aberrazio handia gerta liteke eta aberrazio horretan eroriak gaudela uste dut bete betean. (X. Amuriza, RIEV 32, 1987)

⁷ *Nire ustetan bertsolaritzaren osagarri diren gai-jartze eta epaitze lanerako jendea prestatzearen zeregina da oraindik arautu gabe dagoena. Bertsolaritzaren egituraren eginkizun garrantzitsu izan behar badute hori ere antolatu egin beharko da. (L. Azkune, LARRUN 38, 2000.)*

⁸ *Basoa isilegia litzateke ondoen kantatzen duten txoriak bakarrik arituko balira. (Henry van Dike)*

⁹ *Gauzak horrela, Bertsolari Elkartera jo liteke gai-jartzailearen definizio bila. Hor ere huts egingo dugu. Hiruzpalau fitxa kolore dago (bertsolari, bertsozale arrunt, bertso jartzaile...) baina gai-jartzaileak ez du kategoriarik bere gisara kategoriatan osatzeko. Eta halere, ikusiko dugun bezala, bere esku dago, hein handi batean, jaialdi batean komunikazioaren txinparta sortzeko gakoa. (J.R. Gartzia, BERTSOLARI 18, 1995)*

bat —bertsolariena baino handiagoa, agian— gai-jartzailearen gain dago. Saioaren egitura goitik behera gai-jartzaileak erabaki ohi du aurretik bertsolariekin aipatuko badu ere: serio xamarrean hasi eta umore tantak noiz sartu; zein ariketa berri edo esperimentatzeko zein jolas egin...

Gai-jartzaileen lanaz ari garelarik, orain arte hala izan da eta aurrerantzean ere hala izango dela dirudi, honako ideia hau azpimarratzea komeni da: bertsolariak asmatu badu gaiari zukua ateratzen gai “ona” izango da; orain, ez badu asmatu... hirutik lautan “gai txarra zelako” izango da. Beraz, hori ondo barneratu behar du gai-jartzaileak, eta hori errazagoa eta samurragoa da lana taldean egiten bada. Bai jaialdi baterako gaiak jarri behar direnean, eta bai, jakina, txapelketa baterako gaiak jarri behar direnean ere.

Bertsolaria eta entzulearen arteko lokailu

Besteek garatu eta gozatu dezaten sortu behar da gaia. Bertsolariaren maila goreneneko sormena eta honen bitartez neurri bereko entzuleen gozamina bideratzea da gai-jartzailearen jomuga. Bertsolaria motibatzen, trantzean jartzen, eta publikoaren arreta pizten ahaleginduko da horretarako. Bertsolaria (igorlea) eta entzulearen (hartzailea) lotura kateko lehen kate-begia da gai-jartzailea. Edozein delarik ere gaia, bertsolariak zein entzuleak ezagutzen duena izan behar du. Bietako batek ulertzen ez duen gaiak ezinezkoa egingo du komunikazioa. Besteen nahiak eta gogoak asebate beharrak zailtasun erantsia dakarkio ofizio honi.

Baldintza horiek betetzen dituen gaia sortu eta egoki formulatzeak ez du bermatzen aipatutako komunikazioa. Garrantzitsua da gaia plazaratzeko unea eta modua ere. Ez ditugu egiteko berdintzat gaia sortzea eta bertsolariari eta entzuleari jakitera ematea. Lan ezberdinak dira eta ezaugarri desberdinak eskatzen dituzte. Hala erakutsi digu esperientziak. Pertsona berak bi egitekoak betetzeak, hala gertatzen da gehienetan, ez du esan nahi berdinak direnik. Jaialdi eta txapelketen formatuak hedatzen eta indartzen joan diren heinean, zehazten joan dira hauen inguruan garatu diren funtzio edo egitekoak, batik batik ikuskizun handietan. Hau dela-eta, azken aldian, gai-jartzaileaz ez ezik, gai-emaileaz eta honen egokitasunaz hitz egiten da.

4.- Gai-jartzailea, gai-emailea eta aurkezlea

4.1.- Definizioak

Gai-jartzaileen lanean gertatu den egiteko edo funtzio bereizketa aipatu dugu aurreko atalean. Sarri askotan nahastu ohi ditugu bi funtzio horiek, gai-jartzailearena eta gai-emailearena. Gauzak argi: bi funtzio dira, biak oso ezberdinak eta biak ondo egitea komeni direnak. Hau da, izan daiteke bat gaiak jartzen ona, oso ona, baina aurkezterakoan zalantzak dituelako edo ziurtasun eza eragiten duelako, ikus-entzuleentzat eta bertsolariantzat gai-emaile hain egokia ez izatea, txarra ez esateagatik. Eta alderantziz, gaiak jartzen ez hain iaioa, baina jendaurrean azaltzen egokia. Horrezaz gain, ekitaldi handietan (txapelketetako finalak eta abar...), protokolo zereginetara mugatu ohi den pertsona ere agertu zaigu, bertsogintza ekintza kokatu eta honen inguruko xehetasunak ematera mugatzen dena.

Gai-jartzaileen eskuliburua

Honegatik guztiagatik, nahiz eta jakinaren ganean gauden gaitasun hauen inguruko iruzkin teorikoak egin, neurtu eta ebaluatzeko galtzak bete lan izango dugula, beharrezkoa zaigu izanez bereizten joan garenak izenez ere bereiztea aldioro jakin dezagun zertaz ari garen.

Gai-jartzailea: gaiak sortzeaz, bilatzeaz, hautatzeaz eta idazteaz arduratzen dena da. Gai-jartzaileak, batik bat, behatzailea, so egilea, gordetzailea izan behar du eta, endemas, anekdotak, kontu bitxiak eta gertakizunak jasotzen ahaleginduko dena. Bakar-lanean nahiz talde-lanean jardungo da. Askotan gai-emaile eta aurkezle lanak berak egiten ditu.

Gai-emailea: bertsolariari gaia emateaz arduratzen dena da (gaia publikoki aurkezten duela era esan daiteke, baina egiteko zuzena bertsolariari ematea da). Askotan, ia beti, bera da gai-jartzailea (edo taldeko kidea), eta berak egiten ditu saioko aurkezle lanak ere.

Aurkezlea: bertso ekitaldi bat inguratzen duten xehetasunen berri emateko ardura duena. Ia gehienetan gai-emaileak betetzen du egiteko hau.

4.2.- Profilak

Emandako definizioei kasu eginez, gai-jartzailearena eta gai-emailearena dira gaiarekin lotura zuzena duten bi egitekoak -aurkezlea, oso aldi behin agertuko zaigu, jaialdi handi, txapelketa edo protokolozko ekitaldietan-, eta horiengan bakarrik jarriko dugu gure arreta batak zein bestearen profila zehazterakoan, horiek dira-eta benetan interesatzen zaizkigunak.

GAI-JARTZAILEAK:

- Bertsoa eta bertsolaritza barru-barrutik ezagutu behar ditu.
- Zer esana eman behar dio bertsolariari, dena berak esan gabe.
- Ekimena eta sormena behar ditu.
- Informazioa ondo prozesatzeko gaitasuna behar du.
- Ekitaldi osoaren bizkarrezurra eta gidoia sortu eta bereganatzeko gai izan behar du.
- Gaiak publiko mota ezberdinetara egokitzen jakin behar du.
- Lana planifikatzeko eta antolatzekeo gai izan behar du.
- Gaia ondo formulatzeko gaitasuna izan behar du.

Bertsolariei askotan entzuna da gai-jartzailea zein duten, urduriago edo lasaiago igotzen direla oholtza gainera. Batzuetan, gai-jartzailea neurritik kanpo ibil liteke gauza "originalak" egin nahi izateagatik, eta kasu horretan bertsolaria ez zerurako eta ez lurrerako utz lezake... Ez du horrek esan nahi originaltasunari ateak itxi behar zaizkionik, proposamenari neurria hartu behar zaiola baino.

GAI-EMAILEAK :

- Komunikazio gaitasuna behar du.
- Gaien formulazioa eta hizkera publiko mota ezberdinetara egokitzen jakin behar du.
- Gaiak jartzeko momentuan partaide izan behar du nahita ez.
- Norbere buruaren kontrola duena, jendaurrean ondo moldatuko dena izan behar du.
- Konfiantza transmititu behar du, bai publikoari eta baita bertsolariei ere.
- Gai-jartzaileak adina gaitasun izan behar du gai-emaileak ere ekitaldi osoaren bizkarrezurra eta gidoia bereganatzeko.
- Lana planifikatzeko eta antolatzekeo gai izan behar du.

Jendaurreko ekitaldi bat denez, saioa aurkeztera ateratzen denak oholtza gaineko urduritasunak uxatzen jakin beharko du. Lasaitasuna eta ziurtasuna transmititu behar ditu gai-emaileak. Urduri ari bada, gaia nahastuz, esaterakoan tratatuz... nekez lortuko du saioa bide onetik eramatea.

5.- Gaiak

5.1.- Funtsean, zer dago gai baten atzean?

Bertsolaria

Bertsolariei gaiak nolakoa beharko lukeen galdetu zaienean, gehienek, eskuak poltsikoan dituztela, bizkarrari bi aldiz eragin eta "zer edo zer kantatzeko modukoa" erantzun ohi dute. Izan ere, zaila izaten da alde zurretik gaia ona/ondo irtengo den ala ez jakitea, kontrola ezinak diren faktore batzuk sartzen baitira jokoan, hala nola, bertsolariaren aldarte, entzuleak, saioaren unea (gailurrean edo maldan gora, gainbehera ez denean). Eta hauek guztiak sinkronizatzeak esperientzia pixka baten jabe izatea eskatzen du, nahiz eta jakin honela eginda ere ez direla inoiz erabat kontrolatuko. Beharbada, arestian aipatutako honek egiten du bertsolaritza erakargarria, hau da, benetako bat-batekotasunak. Beraz, honekin, eta besterik gabe, esperientzia pixka baten lizentziarekin alegia, idatziko ditugu aurrerantzean aurkituko dituzun zenbait gogoeta. Halere, honek ez luke izan nahi inondik inora lege.

Bertsolaria sormenera bideratuko duen gaia sortzea, sortze trantzean jarriko duen aitzakia ematea alegia, da gai-jartzailearen egiteko printzipala. Originala, freskoa, modernoa, ausarta... izatea eskatuko zaio gaiari muinez zein azalez.

Gai batek alde asko bildu behar ditu berez ona izango bada. Alde batetik, berria izan behar du, gaurkotasuna duena. Bestetik, gaiak zeresana eduki eta eman behar du, eta bertsolariari bertso iturria ireki behar dio. Berau emateko hautatu den unea eta lekua ere egokiak izan behar dute. Gaiak bertsolaria motibatu egin behar du lehenik; gero, bertsolariak asmatu behar du gaiari heltzen, esanari indarra ematen eta publikoarekin konektatzen.

Bestalde, oso kontuan izan behar da bertsolariaren mundu erreferentziala, eta baita entzulearena ere. Baina zeinen zaila den bertsolariaren mundu erreferentzialarekin asmatzea! Bakoitzak duen mundu erreferentziala du, horregatik, jaialdietan-eta ikusten da bertsolari bakoitza zeinetan moldatzen den erraz eta zeinetan dituen zailtasunak. Estereotipoak ere sortzen dira sarritan bide horretatik. Txapelketan ez da horrelakorik, egokitzen zaien gaiari heldu behar izaten baitiote. Ez pentsa, ordea, beti kalterako izaten denik, gertatzen dira ustekabe ederrak.

Publikoa

Gai-jartzailea saio bat prestatzeko esertzen den une beretik egin beharreko galdera da saioa non izango den. Baina ez gara ari kokapen geografikoari buruz bakarrik. Kokapen

Gai-jartzaileen eskuliburua

honek saioaren nondik norakoa asmatzen lagunduko dio (hiria, herria, auzoa...). Ez da berdina gaztetxe batean egingo den saiorako gaiak jartzea edo herriko jubilatuen bazkarirako jartzea. Abuztuko jaietan, auzo bateko plazan ospatuko den gaueko jaialdian ipini, edo neguko edozein larunbatetan, bertsolari berak auzo bereko areto batean direlarik, gaiak jartzen aritzea ere ez da gauza bera.

Eta xehetasun hauek jakin behar ditu gai-jartzaileak, eta bertsolariak zer esanik ez! Erregistro ezberdinen erabilpen zuzenak nabarmentzen du bertsolaria, batik bat, baina baita gai-jartzailea ere. Horregatik komenigarria izaten da, gai-jartzailea behintzat, jaialdia ospatuko den inguru berekoa izatea, gutxienez, eta bertakoa baldin bada, hobe. Eta gauza bera esan daiteke gai-emaileari buruz.

Bestalde, gero eta nabarmenagoa da entzuleak eskertzen duen gai motaren aldaketa. Igarotako hamarkada luze batean, politikako erreferentziak maite baziren ere, gaur egun, askozaz zoliago ibili behar dute bai gai-jartzaileek, bai bertsolariek gai hauek aipatzean. Gainera, jaialdi baten edukietan oreka bilatu behar da, baina umore (arinkeria, ergelkeria?) ukitua duten gaiak pisu gehiago hartzen dute azken boladan, eta horrek batzuetan errazkerietan erortzeko arriskuan jartzen gaitu denok; umorea serio lantzea oso zaila baita berez.

Dirudienez, entzuleriaren izaera gero eta anitzagoa¹⁰ izateak eragina du gai-jartzailearen egitekoan. Horrek, bestalde, zenbait mugimendu eragin ditu saioen formatuetan; lehengoak mantentzeaz gain beste batzuk sartzen ari dira, gai-jartzailetan eragin zuzena dutenak hauek denak ere: bertso-tramak, genero artekoak...

Gaurkotasuna duena, berria, freskoa, originala

Gaurkotasuna behar du gaiak, esan berria dugun bezala. Izan ere, hurbilean eta bero-bero dauden gaiak gehiago motibatzen dute bertsolaria eta arretatsuago jartzen du entzulea. Betiko kontuak baldin badira ez dute horrenbeste motibatzen ez bertsolaria, eta entzulea ere ez.

Gai berriak jarri behar direla esaten denean, ordea, jai dago gai berri hori entzuleriak ezagutzen ez badu eta bertsolariak horretaz zer eta nola esan ez badaki. Nikolas Zeberriok beti esan izan dio gai berrien inguruan zerbait proposatzen duenari: "Hizketan zer esango huke heuk gai horretaz? Hizketan esan ezin bada bertsotan ez duk errazago izango!" Ez da aholku txarra gaiaren ahalbideak neurtzeko. Teknika mailako aurrerapenekin gertatzen zaigu hau sarritan. Pentsa noiztik dabilen gure artean internet, eta oraindik ere kosta egiten da horrelako gai batek funtzionatzea. Hala ere, pixkanaka ari da sartzen, bertsolariek erabiltzen dutelako, entzule artean gero eta ezagunagoa delako eta, gero eta gehiago direlako interneti buruz dauden informazioak eta ezaupideak.

¹⁰ *Entzuleriari so, heterogeneotasuna da ezaugarriarik nagusia. Gaur egun, oraintsu arte ez bezala, adin, ideologia, jatorri eta gizarte-maila desberdinetako jendea biltzen da bertso ekitaldiaren aurrean (...). Halere, nabarmena da gozatze edo ongi pasatze hutsa gero eta amu handiagoa bihurtu dela, garai bateko kezka politiko, kultural eta linguistikoek gero eta pisu gutxiago duten bitartean. (A.Egaña, JAKIN 75, 1993)*

Ariketen neurria

Gai batek lantzeko era asko ditu, eta horretan ere asmatu egin behar da. Sakontasuna nahi bada, bakarkakoa egokia da gaiaren alde bat landu nahi denean; bertsolariak motibatua egon behar du horretarako, eta txapelketa da garantia gehien duen plaza. Jaialdietan ez dira bakarkako gai sakonetarako baldintzarik onenak gertatzen beti: tokia, entzulea, ekitaldia, bertsolariaren momentuko baldintza pertsonalak, (pasa duen eguna, egin dituen saioak...) Txapelketan kartzelako gaiak ere begirune berezia merezi du; denek kantatu behar dutenez, gai onaren baldintza guztiak betetzeaz gainera, bide bat baino gehiago ireki ditzakeena behar du. Asmatzen oso zaila bestalde, ahaleginak egin arren.

Formulazioa¹¹

Aldez edo moldez, zuzentasuna eta argitasuna lehenetsi behar da, literaturarik gabe, ahal den zehatzen, argien eta laburren. Hots, ñabarduretan aldeak egon daitezkeen arren, gaiaren ideiak (ikuspegia) eta formulazioak (aurkezpena) argia behar du bertsolariarentzat. Jakin badakigu halere, hemen ere zenbat buru hainbat aburu egongo dela. Ez dagoela muga zehatzik alegia, honaino egokia da eta hemendik aurrera ez esateko. Baina, gauza bat argi izan behar dugu: bai bertsolariak eta bai entzuleak lehenengo kolpean ulertu behar du gaia.

Adibideen bitartez saiatuko gara argiago ikusarazten:

Buruan sortu zaigun ideia araberan, interneta jarri nahi badugu gaitzat, bertsolariari ahalik eta ikuspegi samurrena ematen ahaleginduko gara:

Ez hain egokia: *“Interneten nabigatzen ari zara Xalbadorri buruzko informazioa bilatu nahian. Hiru-lau ordu daramazu bilatzaileen bitartez, informazioa aurkitu nahian eta ez duzu ezer ganorazkorik topatu”.*

Egokiagoa: *“Interneten informazio bila ari zara Xalbadorri buruzko informazioa bilatu nahian. Hiru-lau ordu daramazu bila eta bila eta ez duzu ezer aurkitu”.*

Zein da aldea? Lehenbizikoan informazio teknikoegia aipatzen dugu horrenbesteko premiarik gabe. Horrek bertsolaria nor denaren araberan, zalantzan eta noraezean utz dezake. Gure ustez, egokiagoa den aldaeran, funtsean, gai bera adierazten zaio. Eta interneten oso jantzia ez den batek ere aski erraza izango du gaia lehen kolpean ulertzea.

Idazketari dagokionez ere badira gorabeherak: gaia noraino esan eta noraino ez. Hau da, zein da bertsolariak behar-beharrezko duen informazioa gaiaz ondo jabetzeko. Izan ere, gaia aurkezterakoan behar baino gehiago esanez gero, arriskua dago bertsolariak bertsoz esan beharko lukeena esateko. Honetan ere ez dago lerro argi bat adierazten digunik “honaino nahikoa duk/n”. Adibide bidez saiatuko gara adierazten.

¹¹ *Gaiaren mamia bezain garrantzitsua da FORMULAZIOA, eta bada ordua kontura gaitezen. Gai-jartzaileak zenbateraino gaia IREKIta utzi behar duen, zenbateraino borobildu eta ITXI, gai bakoitzaren araberakoa izango da neurri batean, baina horra hor bertsolariekin komentatu eta aztertu beharreko beste puntu bat. (JR.. Gartzia, BERTSOLARI 18, 1995)*

Gai-jartzaileen eskuliburua

Ez hain egokia: *“Zuek 10 urte daramazue bikote modura. Hainbat gorabehera izan ditu zuen harremanak denbora honetan zehar. Halere, zuk ___Ak___ uste duzu bidera daitekeela. ___Bk___ berriz uste du harremana bertan behera uztea dela hoberena, ez baitu uste egoerak hobera egingo duenik. Alderantziz, okerrera joango dela uste du.”*

Egokiagoa: *“Zuen bikote harremanak hamar urte bete ditu. Zuk, ___Ak___ uste du bion arteko maitasuna itzaltzen doala. ___Bk___ alderantziz uste du: maitasunari bizirik eutsi diezaiokezuela!”*

Gaia zuzentzeko aditz formak

Bertsolaria eta publikoa dituenek aurrez aurre gai-emaileak, argi edukitzea komeni da zein aditz formetan zuzendu bakoitzari. Txapelketak dira honetan ere zurruntasun gehien eskatzen dutenak. Hori dela-eta, hainbat irizpide finkatu dira:

BERTSOLARIEI ZUZENTZEKO: bakarkako gaietan, bigarren pertsonan (zu/zuk...) zuzentzea hobesten da. Oñizietan, bigarren pertsonan zuzenduko gatzazkie bertsolariei (zuek/zuen/zuei...), baina zehaztapenak egiterakoan, hasi behar duenari bigarren pertsonan (zu/zuk...) eta erantzutea tokatzen zaionari hirugarren pertsonan (hura/hark...) zuzentzea hobesten da. Adb: *Juradu popularrerako deitu dizuete bioi. Zu, Andoni, joateko prest zaude, baina Bixentek ez du ezer jakin nahi.*

PUBLIKOARI ZUZENTZEKO: hirugarren pertsonan, inpersonalean, emango da. Adb: *Juradu popularrerako deitu diete bie. Andoni, joateko prest dago, baina Bixentek ez du ezer jakin nahi.*

Askeago joka daiteke eta jokatu behar da jaialdi eta ohiko saioetan, baina formula gomendagarria irizten diogu txapelketetarako, nahasmenak saihesten lagunduko digu-eta.

Sexu markaren gorabehera.

Emakume bertsolarien presentzia areagotzen eta indartzen joan den heinean, hala izan behar ez zukeen arren, buruhauste batzuk sortzen hasi zaigu sexu markaren auzia.

Askotan jarri izan ditugu bertsolari mutilak, ama, emaztea, amona, alaba edo ahizparen paperean eta inolako arazorik gabe kantatu dute. Alderantzizko kasuetan ere, neska bat mutilaren paperean jarrita, berdin funtzionatzen du.

Gauzak gehiago nahasten dira harreman afektiboak tartean sartzen direnean, alegia, bikote eta amodio kontuak direnean. Era askotako iritziak dauden arren gai batean sexua markatzearen komenentziari buruz, norbere izaeratik hurbilen den paperetik hobeto arituko den ustean, gaiaren planteamenduan neska/mutila, ama/aita, amona/aitona... egokitzea izan da azken joera. Honek ez du zailtasunik sortzen ohiko saioetan, gaiak jartzerakoan norentzat den ere erabakitzen delako. Bestelako kontua da txapelketetan. Hemen, zozketak erabakitzen duenez, zaildu egiten da gai-emaileen lana, bat-batean egin behar baitu nola zehaztapena hala aurkezpena, eta nahasteren bat sortzeko arriskua handitu egiten du.

5.2.- Hasierako puntuak:

Bertsolari askoren iritiz, puntuari erantzutea edo puntua jarrita bertsoa osatzea da ariketarik zailena, zenbait bertsozalek hala uste ez badu ere. Bertsolarien bat-batekotasuna frogan jartzeko ariketa da. Berez da zaila. Bertsoaren hasiera ematen diogunean bertsolariari, bere ohiko prozedura, bukaera pentsatu eta gero hartara bideratu bertsoa, hankaz gora jartzen ari gara. Hori kontuan izanik, zenbait irizpide oso garbi edukitzea komeni da, berez zaila den ariketari porrotera eramango gaituen zailtasunik gehitu nahi ez badiogu.

- Mezu garbia izan behar du, erraz ulertzeko modukoa.
Adibidez: **“Gerrikoa estutu” entzuten da sarri.**
- Gaia lehenengo lerroan eman behar da, ahal dela.
Adibidez: **Burgosko epaiketa, berriro gogora**
- Galdera edo baieztapena izan daiteke.
Adibidez: **Non da Lazkao Txiki, ez da hemen ageri? / Lazkao Txiki dago guztion gogoan**
- Elkarrizketa edo istorio baten hasera izan daiteke.
Adibidez: **Hirugarren mundua hain dago aparte**
- Ez erabili arrazoirik. Hori ahal badu bertsolariak berak egingo du.
Adibidez:
Ez egokia: Zabor artean ito, behar dugu laster
Egokia: **Zaborrez estalita hainbat leku eder.**
- Errima zail edo estuak baztertu, ariketak badu bestela ere nahikoa zailtasun. Adibidez:
Ez egokia: Jeloskorra zarela esan du norbaitek
Egokia: **Jeloskorra zarela daukagu entzuna**
- Errima erosoak jarri; singularrak erabili eta ergatiboak eta pluralak saihestu.
Adibidez:
Ez egokia: Jainkoak egin gaitu eme eta arrak
Egokia: **Mundura sortu ginen emea ta arra**
- Errima modura ez jarri oso esanguratsuak diren hitzak. (dira, gabe, beharra, bezala, guztia...). Adibidez:
Ez egokia: Ustuko al da zure almazen guztia?
Egokia: **Beteta al daukazu bertso almazena?**
- Doinua aukeratzekoan, ohiko saioetan, kontutan izan puntuak markatzen duen gaia sentimenduzkoa den, umorezkoa, zirikatzailea, kultur arlokoa etab... eta dagokion estilokoa hautatu.

5.3.- Puntutan aritzeko gaia

Bi bertsolari puntutan aritzeko ohitura guztiz zaharra dela esan daiteke. Bertsolariek, zaharrenek batik bat, sarri erabiltzen zuten eta dute euren jardunetan, saioari amaiera bizia

eman nahian-edo. Gai libreko saioetan aritu ohi dira gehienetan. Jaialdietan ere agintzen da ariketa hau, baina hiru bertsolariri deitu eta gai librean uztea da usadioa, hartara, hasten denak amaitzen duenez, bertsoaren bukaera indartsua ziurtatu dago hein handi batean. Biren artekoa, ordea, gutxitan egiten da egungo jaialdietan. Azken txapelketan arnas berritzea erabaki zen biren arteko dialektika ariketa hau, gaia emanda noski.

Baina puntutan aritzeko gaiak bere ezaugarriak dituela iritzirik, honako irizpide hau hartu du gai-jartzaile taldeak: bi bertsolariak, egoera, trantze, arazo edo pasarte beraren aurrean jarriko dira, hau da ofizio edo lan desberdinik eman gabe. Adibidez:

- 1- Bi aktore zarete. Pelikulako gidoiak hala eskatzen duelako, elkar laztandu edo musukatu behar duzue.
- 2- Eskiatzen zabiltzatela, elkar jo eta lurrera erori zarete.

6.- Gai-jartzailletza

Egun, ia bertso plaza denetan du lekua gai-jartzaileak: areto handietako jaialdietan zein lagun-arteo bazkari eta afarietan, txapelketetan zein sortzen joan diren formatu berrietan.

Horietan guztietan zaindu beharreko alderdiak azaltzen ditugu ondorengo lerrotan. Txapelketa eredia da gehien landu dena, duen zurruntasunarengatik irizpidez gehien zorroztu dena.

6.1.- Jaialdietan

Jaialdietako saio mota hau da gaur egun hedatuena. Eta jakina, era honetako saioetan gai-jartzailearen parte-hartzea erabatekoa da.

Antolatzaileen deia

Antolatzaileen deia jasotzen duenean hasi ohi da prozedura. Dei horretan bertan jakingo du gai-jartzaileak zein bertsolari izango diren, non izango den saioa, noiz izango den, eta motibo nagusia. Informazio hau guztia garrantzitsua izango zaigu gaien edukia eta saioaren egitura erabakitzerakoan. Beti hartuko da kontuan non den saioa, nortzuk diren bertsolariak, eta zein den motiboa. Aldi berean, komeni izaten da antolatzaileen telefono zenbaki bat eskura izatea harremanetarako.

Ingurumariaz jabetu

Gaiak pentsatzen hasteko unean bada beste puntu batzuk oso kontuan hartu beharrekoa: saioa izango den lekua nola prestatuta egongo den, zein baliabide izango ditugun, eta ze entzule motarekin topo egingo dugun. Azken honi dagokionez, aniztasuna da gaur egungo joera: oro har, bertso jaialdietan denetarik bildu ohi da. Beraz, adin guztietakoentzat orekatua izango den saioa lortzen ahaleginduko da gai-jartzailea beti ez bada, gehienetan.

Idea ehiza

Hortik aurrera, denboran gertu samar egon edo urrun samar egon (urrun badago lasaiago; gertu badago sutsuago) saioa buruan ibili behar du gai-jartzaileak nonahi dabilela ere. Gainera, badaki zein bertsolari diren saio horretan, eta horrek asko lagunduko dio saioak erabakitzeke unean: "halako gaia urlia bertsolariarentzat da egokia, eta beste hau, sandiarentzat. Berendia pittin bat estutu dezakegu saio honetan beti mutilzaharraren gaia ipini gabe."

Eta halako ideia egokia izan daitekeela pentsatuz gero, berehala idatziko du gai-jartzaile izango denak oharra orri batean. Saioa izango den leku hartako gertakari historikoak, fama edo sona eman izan dion gertakariaren bat badago horiek ere ideia bezala idatziko ditu lehenbailehen. Halere, hemen ere pilaketa egingo du gai-jartzaileak lehen fasean; eta materiala pilatu ahala hasiko da saioa prestatzen.

Etxetik plazara

Hau guztia bakarrik egin ohi du gai-jartzaileak, saiorako deitu diotenetik. Tartean, inguruan, bertozale taldetxoak edukiz gero -bi edo hiru lagun, gehienera!-, haiekin elkartu, eta prestatutako saioaren aipamen bat egin dezake gai-jartzaileak, gaiak balekoak diren, ideia errepikaturik badagoen, eta beste hainbat kontu azalduz. Halaber, adiskide horien laguntza ere jaso dezake, beraien ekarpenak, alegia.

Gai-jartzaileak, saioke egunera arte ez du harremanik izango bertsolariekin; saioa baino ordu pare bat lehenago elkartuko dira, afaltzeko gelditu direlako, kasurik onenean, eta bestela, ordu erdi bat lehenago. Ordu erdi horretan, saioaren egitura eta beharrezko ikusten dituen xehetasun batzuk azalduko dizkie labur-labur bertsolariei: norik duten bakarkako gaia, ariketa berezi bat jartzeko asmoa duela... Bien bitartean, gai-jartzaileak adi egon behar du. Izan ere, ordu erdi horretan, bertsolarien batek, edo beste norbaitek, zerbait esan dezake eta hortik etxetik ekarritako gaia baino hobea den beste gairen bat atera daiteke. Edo saioan zehar, zerbait gertatu bada, hura ere aprobetxatzea komeni da. Hitz batean esanda, etxetik ekarritako egitura edo eskemak malgua izan behar du. Dena den "ofizioa"z oso jabetua egon behar da azken orduko aldaketa hauek egitera ausartzeko.

Jaialdien egitura¹²: bertsolari kopurua eta 11 gomendio

Jaialdietako bertsolarien kopuruaz asko hitz egin eta esan da. Antolatzaileen joera ikusita – tartean arrazoi bat baino gehiago egon daitekeen arren- esan daiteke lau edo seiko kopurua dela gehien dabilena. Batzuk diote bertso saio baterako kopururik onena lau bertsolarikoa dela. Era honetara, eseri/altxa, eseri/altxa, saioa bizi-bizi joateko modua dago. Halere, espazioak eta begiek ere badute honetan zerikusia: areto txiki eta ertainetan laukoa egoki ikusten da eta saioa bete da gelditzen da lau bertsolarirekin. Baina, pilotaleku edo kiroldegi

¹² Bertso jaialdiak batasun bat eduki behar du, pieza oso baten itxura erantsi behar zaio. Jardun ezberdinek hala agintzen dutelako, zatika eta jauzika badoa ere, azkenean puzzle osatu baten tankera hartu behar du. Gaiak ez dute elkarrekin zerikusi gabeko harrikadak izan behar, ekitaldi beraren kate begiak baizik.(X. Amuritz, BERTSOLARI 18, 1995.)

Gai-jartzaileen eskuliburua

batean seiko taldea aproposagoa izan daiteke. Hain areto handian laukotea txiki gera bailiteke begientzat eta, bide batez, txikitasuna transmititzen du jaialdiak. Denak ez badira, gehienak bat datoz, seitik gorako taldeak, zortikoa esate baterako, moldakaitzak direla esaterakoan.

Bertso jaialdi baten egitura saioz saio aldatzen da. Bertsolari kopuruak, saioa burutzen den testuinguruak... gauza askok dute eragina. Ez dago formula zehatzik eta jaialdi guztiak dira desberdinak egiturari dagokionez, bai ariketen banaketa aldetik, bai jartzen diren gaien garapen aldetik. Ez daude bi berdinak direnak. Halaz guztiz ere, komeni da gauza batzuk argi edukitzea prestatzen ari garen bertso saioa taxutzerako:

- Bertsolariek ez dute denbora luzean kantatu gabe egon behar. Erritmo bertsuan txandakatzen ahalegindu behar da.
- Bertsolariek kantatu beharko duten bertso kopurua orekatua izan behar du.
- Bertsolari bakoitzak denetarik kantatzeko aukera izan behar du: gai serio edo sakonetan bezala umoretsuetan.
- Hasierako agurra kantarazi bertsolari guztiei; lasaitzeko eta entzuleekin lehen hartu emana izateko ongi etortzen zaie. Ondoren, ez da txarra, gai zabal samar bat jarri eta guztiei beste bertso bana-edo kantatzeko aukera ematea, ekar dezaketen tentsio edo urduritasun puntua guztiz uxatzeko. Baina ez da beharrezkoa.
- Bertsolariari ematen zaion lehen gaia ez du bakarkakoa izan behar. Hobe tema edo ofizioko ariketa batekin hastea.
- Saioan zehar, ona da bertsolariak ohartaraztea txanda datorkienean, gaia esan gabe noski: bere txanda dela hurrengoa, bakarkako gaia jarriko zaiola, puntuak... Bertsolaria gertu egon dadin behar duen informazioa.
- Gaiak estilo aldetik antolatzeko irizpide adosturik ez dago; gai-jartzaile bakoitzak ditu bere gustuak, eta hala komeni da. Aipatutako hasiera lasaia eman ondoren, intentsitate goreneko uneak bideratzen ahalegintzen dira guztiak, eta horrek ez du zerikusirik gaien estiloekin. Dena den, urtetako esperientziak hala eskatuta-edo, bada nahikoa hedatua dagoen joera bat gaiak ordenatzeko orduan: gai serioak, transzendentelak, saioaren hasiera-erdialdean jarri eta azkenerako utzi humorea, ironia eta dialektika bizia eskatzen dutenak.
- Iraupena zaindu egin behar da; motz geratzea bezain edo kaltegarriagoa da gehiegi luzatzea. Aurrez kalkuluak egiteko batz besteko egokia da hau: bertso bat = minutu bat. Irizpide honen arabera, hona proposamen batzuk:
 - 6 bertsolarirekin: ordu eta erdi-berrogei minutu: 96-110 bertso
 - 4 bertsolarirekin: ordu eta hamar minutu: 72 bertso
- Une egokian amaitzen asmatu behar du gai-emaileak. Kontuz ibili behar da saio luzeegiakin. Gerta daiteke, saioa bete-bete (bertsolariek zein entzuleak gustura) egotea eta, nahiz eta saioa pentsatutako iraupenera hurbildu, beste gai bat jartzeko tentazioa izatea: hobe horrela bukatzea, gai bat gehiago jarri

eta ez asmatzea arriskatzea baino. Prestatutako gai bat eman gabe uzteko beldurrik ez da izan behar; gorde beste baterako.

- Bukaerako agurra kantaraztea ez da hasierakoa bezain derrigorra. Denek kantatzea da ohikoena, bertso on asko entzuteko aukera ematen du gainera. Baina bestelako bukaerak ere sarri ikusten dira: azken ariketa egin ez dutenei eskatu, bakarrari denen orde... Kasurik txarreanean, batek bederen kantatu behar du entzuleak agurtzeko.
- Amaitutakoan, berriz, ona da bertsolariekin elkartu eta saioari errepaso bat eman eta ondorioak ateratzea.

Gai-emailearen lana

Saioa hasitakoan, gai-emaileak oso adi ibili beharra dauka. Bere gain hartu behar du saio osoaren kontrola. Eskuarlean dituen gaiez gain, badaude hainbat faktore eragin handia dutenak. Esaterako: ikusten bada saioa hasterako jendea urruti dagoela, edo atzean zutik pilatuta dagoela aurrean lekua egonda, mikrofonotik bertatik eska diezaieke hurbiltzeko. Honekin batera, lehendabiziko agurrak kantatutakoan, bertsolariei bezala entzuleei ondo entzuten den galdetzea komeni da. Eta hala ez bada, soinu teknikariari esan diezaioke mikrofonotik bertatik, ez dela ondo entzuten. Jendea hotz badago txalo jotzera anima dezake gai-emaileak. Funtsean, askotan gai-emaileari betetzea egokitzen zaizkion funtzioak dira hauek. Jendea lepo, primeran entzun eta saioa bero-bero hasi bada ez da ezer egin behar. Baina izaten dira alderantzizko egoerak ere. Eta aipatu ditugun gomendio horien bidez konpon daitezkeen gorabeherak dira. Hortik aurrera bi gauza hauek behar dute oso kontuan:

- Gai-emaileak erritmo egokia bilatzen jakin behar du, bai gaia irakurtzerakoan eta bai bertsoaldien arteko etenaldietan. Ez da komeni azkarregi jardutea, baina ezta ere polikiegi. Bertsoaldien arteko etenei dagokienez, itxaron egin behar da bertsolaria mikrofonoaren aurrean prest ikusi arte.
- Formulaturako gaia argi eman aditzera; mesede egiten du errepikatzeak.
- Txapelketetan ez bezala, egokia izan daiteke komentario osagarriak egitea ikus-entzuleen arreta erakartzeko, gaiari indarra emateko, edo gaia hobeto kokatzeko. Dena den kontu handiz ibili behar da honekin. Ez ahantzi bertsolaria dela protagonista nagusia.

6.2.- Lagunarteko saioetan

Beste saio mota bat bertso afari eta bertso bazkariena da. Hauetako asko libreko saioak eta gaia emandakoak, aldi berean uztartuz egin ohi dira. Saio mota hau malguagoa da etxetik eramandako eskemaren aurrean. Izan ere, bertso afarietan, bertsozaleak eta bertsolariak kantatu baino hiru bat ordu lehenago elkartzen dira. Oro har, gehienetan kopuru egokia bildu ohi da giroaren onerako.

Halere, honako honetan ere, gai-jartzaileak etxean egin beharreko lana eginda joan beharko du kontuan hartuz bertsolariak zein diren, saioa non den, saioaren arrazoa ... Jaialdi bat taxutzeko kontutan hartzen dituen alderdiak berdin izango ditu kontuan.

Honelako saioetan, gai aukera zabala eramatea komeni izaten da eta ez eskema finkoa. Izan ere, saioa nola doan kontu, bide alaiagoa edo serioxeagoa hartzeko proportzioa eman baitezake saioak. Honelakoetarako lau bertsolari kopurua ere egokia da.

Zenbaitetan bi bertsolariekin ere eskatu ohi dute antolatzaileek gai-jartzailea. Baina ohitura berria da hau; tradizioz, bi bertsolari direnean librean moldatzea da ohikoena.

6.3.- Txapelketetan

Neurri askotako txapelketak egiten dira, herri mailakoetatik hasi eta Txapelketa Nagusira bitartean. Jarraian ematen ditugun irizpide hauek 1986tik hona Bertsozale Elkarrekin antolatutako txapelketetan gaiak jartzen aritu direnen esperientzia dute oinarri. Neurri egokian baliagarriak izan daitezke txikiagoentzat ere.

Lan filosofia, talde lana: norbanakoaren ardura, besteekiko errespetua...

Esan dugunez, gai-jartzeak bakarkako lanean du abiapuntua. Baina hori garbi jakinik ere, talde lanean izan ohi du jarraipena. Hau da, bakoitzari sortutako ideiak edo gaiak taldean jasotzen dira. Eta horrek, edozein talde lanetan bezala, ardura eskatzen dio gutako bakoitzari. Halaber, taldekideekiko errespetua ere eskatzen du. Gai-jartzaile taldean ideia guztien inguruan dialektika jolasa egin ohi da. Eta dialektika horretan, norberak bere ideiak aurrera atera nahi izaten dituzenez, normala den moduan, hor izaten da egoskortzeko arriskua. Hortaz, honelako egoera batera iristean, ez aurrera ez atzera geratu ohi dira taldekideak. Beraz, komeni izaten da jarrera ulerkorra hartzea, gutako bakoitza gurean tematu gabe. Hori bai, hasieran ideia guztiak dira defendagarriak eta bakoitzak bere ideia munduko hoberena bailitzan defendatzea ona da. Baina, aldi berean, bilerak aurrera egingo badu, komeni da jarrera ulerkorra eta errespetuzkoa hartzea.

Esperientziak diosku bi fase daudela txapelketetan: bilketa lana batetik, eta saioak goitik behera taxutzearena, bestetik. Lehen fasean ideiak onartzea errazagoa da. Hartu eta bildu, hartu eta bildu, besterik ez baita egiten. Baina gero izaten dira komeriak; saioak taxutzerakoan. Eta juxtu fase horretan egon ohi da ideien baten inguruan tematzeko arriskua.

Hau guztia ez gertatzeko, bada botika bat: gai-jartzaile taldeko kideak bilera guztietara dozena bat ideia edo gai berrirekin etortzea txapelketa osoan zehar. Izan ere, lehen fasean, bilketarenean, jendea gogotsu hasi ohi da eta gero makaldu egiten da, saioak taxutu behar direnerako. Eta prozedura luzea den arren, garrantzitsua da ideia sortzeari eta pilaketari prozedura osoan zehar eustea.

Gero, saioaren eguna hurbil delarik, bizpahiru egun aurretik, ordurako jarritako gaiak berrikusteko garaia helduko da: azken ordurako gertaeraren batek, edo beste zerbaitek, eska dezake gai berri bat sartzea, gai baten formulazioa aldatzea edo bakarren bat kendu eta bere lekuan beste bat jartzea. Berrikuspen hau egitean zalantza zaharrak berritzea ere gerta daiteke, erabakia hartu ezinik, taldekideen artean tentsio uneak sortuz. Honek zera erakusten digu: gai-jartzaileen burua errazago konformatzen dela prestatu behar duen saioa

zenbat eta urrunago egon. Honela ulertzen da txapelketa batean, bilketa fasean, galbahea pasatzen bada ere, baliozkotzat hartzen diren gai edo ideia asko, nola gero saioa taxutzeko momentuan atzera botatzen diren edo beste era batera moldatu arrazoi asko tarteko dela. Saioa zenbat eta gertuago, orduan eta estuago hartzen du gai-jartzaileak bere burua: zorrotzu egiten da gaiarekiko eskakizuna, eta taldekideen artean egoera zailak sortzeko arriskua sortzen da. Holakoetan ohitura ona da zalantzak dituen hark gustuko ez duen gai hura ordezkari dezaketen gai berriak aukeran jartzea.

Lan ezberdinetarako irizpideak:

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak txapelketak antolatzen hasi zenetik, ariketa ezberdinetarako nolako gaiak ipini behar diren irizpideak finkatzerakoan, esperientziak erakutsi digunaren arabera jokatu dugu. Hasieran zalantza gehiagorekin, noski. Baina azken aldi honetan gauzak nahikoa argi daudela dirudi. Eta gainera, bertsolariak ez dira txapelketetan gauzak nahastu zale, berez baita trantzea txapelketa. Aldi berean, azpimarratu behar da irizpide hauek ez direla arau finkoak, noiz edo noiz gogoeta baten ondoren aldatu edo moldatu daitezkeenak direla, alegia.

Halere, jakinik txapelketako egitura zenbateraino den zurruna, ez da batere erraza izaten aldaketak egitea. Izan ere, ariketa mota bakoitza ezberdindu beharra dago saioaren oreka gorde nahi bada. Oso kontuz ibili beharra dago erreferentziak ez errepikatzearekin. Eta gainera, ariketa bakoitzean ahalik eta alde gutxiena behar du gai batetik bestera. Hala komeni da saio osoan zehar eta, areago, txapelketako saio guztietako bertsoaldietan. Hitz batean, ahalik eta erreferentzia gutxien errepikatuz saio orekatuak prestatzean datza karkoa. Ez da erraza, ordea, gauza guztiak kontuan izatea. Horretaz gain, gaien eduki aniztasunak, rol desberdinak, guzti-guztiak baitauka eragina txapelketa batean.

Txapelketako saioetan gauza bakarria izan ohi du gai-jartzaile taldeak gogoan: taxutzen ari den gai hura zein saioetarako izango den aurreikus dezake, baina hortik aurrera gutxi, ezin da eta jakin nori egokituko zaion halako gai bat, zozketaz aukeratzen direnez gero. Honela, gai-jartzaileak ez ezik, bertsozaleren batek ere pentsa dezake, halako bertsolariari gai bat jakitera eman diotenean, nahita ere ezin zitzaiola hobeto egokitu. Eta alderantziz berdin, halako bertsolariari ustez batere ez doakion gaia egokitzen zaionean. Baina horiek guztiak ezin dira aurreikusi, eta hau komeni da denok garbi izatea: txapelketan zozketa bidez erabakitzen da zein hurrenkeran kantatu behar duten, baita zein gairi kantatu behar dioten ere.

Gauzak honela, hauek dira orain arte erabili izan diren irizpideak txapelketetan. Eta urtetik urtera horrela segitzen dute, aldi oro mahai gainera ateratzen ditugun arren zerbait aldatzeko premiarik dagoen jakiteko. Baina, ez da aldaketa nabarmenik gertatu ariketa bakoitzeko gaiak nolakoak izan behar duten zehazterakoan. Nahiz eta, txapelketa ondorenetan halako kritika puntualen bat beti azaldu daitekeen. Beraz, hauek dira erabili ditugun irizpideak eta argi bezain ozen esan nahi dugu, ez direla hauek nahita ez betebeharrekoak gerora ere. Bakar bakarrik, orain arte nola jokatu dugun eta, are gehiago, gaur egun nola jokatzen dugun adierazi nahi dugu.

BINAKA : OFIZIOA, TEMA edo ELKARRIZKETA

8ko Handia: Gai arruntak, orokorrak eta irekiak. Bakoitzaren bidea eta jarrera argi azaltzen dutenak.

8ko Txikia: Gai biziak, zorrotzak, umoretsuak. Bakoitzaren bidea eta jarrera argi.

10eko Txikia: Gai sentikorrek, sentimendu karga dutenak. Gai samurrak. Bakoitzaren bidea argi.

10eko Handia: Gai serio eta dramatikoak.

6 puntukoak: (Mainontzi edo Iparragirre). Gairik erakargarrienak, neurriak berez baitu aski zailtasun.

Puntutan: Egoera berean biak. Gai umoretsuak.

Elkarrizketak: Egoera baten aurrean biek elkarri lagunduz eta sakonduz aritzeko gaiak

Kantatzeko ordenak zaindu: Ez da berdin hastea eta erantzutea. Ahal den orekatuena ematen ahalegindu behar da. Nor hastearen auziaz txapelketarako gaiak jartzeak erakutsi digu nola jokatu. Sarritan formulazioak garbi agintzen du nork hasi behar duen hizketan. Argi ez badago, erasotzea egokitzen zaiona hastea da zuzenena eta defenditu behar duenak, erantzutea. Horrek ere argitzen ez badu, teoriarik paper errazena duena hasi eta zailena daukana erantzuten jarri.

BAKARKA:

Bakarkako gaiak: Txapelketa saioko bertsolari bakoitzari gai bat jarri behar bazaio, abaniko zabala eskaini behar da, baina, aldi berean, elkarren arteko alde nabarmenik gabekoak behar dute izan. Serioak eta arinak bietatik izan daitezke. Ez da gai dramatikoetan gehiegikerietan erori behar. Bertsolariari historia bat kontatu edo egoera bat garatzeko aukera ematen diotenak behar dute izan, bertsolariaren irudimena eskatzen dutenak.

Lau oinak: Errima egokiak beti. Lau hitzen artean erlazioa bilatzen saiatu izan gara. Oinak izenak, adjektibo edo izenondoak, erakusleak edo aditzak izan zailtasuna eransten du. Ez da komeni lau oinak mota berekoak izatea.

Bukaerak: Amaiera borobil eta arrazoi sendoak, filosofiko samarrak.

Bukaera aurrekoak: Bukaerako errematea emateko modukoak, ez itxiak.

Puntuak (ikus 5.2. puntua): Galderak eta baieztapenak, bietakoak jartzea; arrazoi borobilak ez jartzea; informazioa lehen lerroan ematea; eta errima eroso eta bidea ematen duena jartzea, pluralak eta ergatiboak saihestuz, dira irizpide nagusiak.

Hitza/errima: Hitz adierazkorrek eta errima erosoak.

Hitza/gaia: Esan nahi garbia duten hitz adierazkorrek.

Gai-jartzaileen eskuliburua

Kartzelakoa: Emankorra eta zabala izan behar du. Ikuspegi bat baino gehiago izan ditzakeena, askotariko ikuspuntuak onartzen dituena. Oso kaltegarritzat jotzen da bertsolariak hautatzeko bide bat edo bestea dituenean, hau da, formulazio berean gai bat baino gehiago pilatzen direnean.

Zenbaiten ustez, kartzelako gaiak sentimenduak ukiaztzeko modukoak izan behar lukete beti. Sentimenduzko gaiak ziurtasun gehiago ematen diete bertsolariei, baina gai zabal bat ere bihur daiteke sentimenduzko.

Kartzelako ariketaren zentzua bertsolari guztiak ahalik eta baldintzarik berdinenetan probatzea da eta, beraz, hala ez izateko aukerak murriztu egin behar dira. Tradizioak, kartzelan gai bakarra jarri behar dela dio. Azken urteetan, ordea, bi gai (aukeran edo txandatu) jartzeko joera ere izan da, sei-zortzi bertsolari gai berari buruz aritzea publikoarentzat astunegia dela iritzita. Bataren zein bestearen aldeko iritzia daude. Edozein gisatara, arazo honek zerikusi zuzenagoa du antolakuntzak jartzen dituen helburuekin, entzuleak gustura izatearen asmoarekin alegia, gai-jartzailearen lanarekin baino.

Gai-emailearen lana

Txapelketa batean, gainerako saioetan bezala, gai onak jartzea bezain garrantzitsua da horiek bertsolariei jende aurrean behar bezala aurkeztea. Gai-emaileari dagokio egiteko hau, hau da, bertsolari eta entzuleen arteko zubi-lana egitea.

Gai-emailea izan daiteke ideietan ekarpenik egin ez duen bat. Jendaurrerako ezagutzen zaion trebezia dela-eta horretarako hautatua izan dena. Halere, esperientziak dioskunez, ona eta komenigarria da gai-emailea ideien ekarpenak egiten jardutea. Hau da, gai-jartzailea izatea.

Ezinbestekoa zera da: gai-emailea, berari dagokion txapelketako saioa prestatzeko egiten den gai-jartzaileen bileran partaide izatea, gutxienik.

Horrezaz gain, ez da gauza bera ohiko jaialdi batean aritzea edo txapelketan. Txapelketak "jolaserako" terrenorik ez du; ez da gune eta une aproposa txisteak egiteko, bertsolariek esandakoari zerbait eransteko, edo pentsatutako gaia aldatzeko. Eskuarlean dugun gaia argi eta garbi agertzea da egiteko ia bakarra.

Bi irizpide:

- Gai-emaileak erritmo egokia bilatzen jakin behar du, bai gaia irakurtzerakoan eta bai bertsoaldien arteko etenaldietan. Ez da komeni azkarregi jardutea, baina ezta ere polikiagi. Bertsoaldien arteko etenei dagokienez, itxaron egin behar da bertsolaria mikrofonoaren aurrean gertu ikusi arte; ez hasi, esate baterako, kartzelatik bueltan bertsolaria oholtzara igo orduko gaia esaten: bertsolaria prest dagoela ikusten den arte itxaron.
- Formulaturako gaia irakurri egin behar da, bi aldiz. Lehen irakurraldian bertsolariei zuzendu behar zaie gai-emailea; bigarren irakurraldian, dagoen-dagoenean errepikatzea da aukera bat, bestea, berriz, publikoari zuzentzea aditz forma inpersonalean (Gaia zuzentzeko aditz formak, 20. orrialdea). Adb:

1. *IRAKURRALDIA*: Juratu popularrerako deitu dizuete bioi. Zu, Andoni joateko prest zaude, baina Bixentek ez du ezer jakin nahi. Hiru bertso zortziko handian Andoni hasita.
2. *IRAKURRALDIA*: Juratu popularrerako deitu diete bie. Andoni, joateko prest dago, baina Bixentek ez du ezer jakin nahi. Hiru bertso zortziko handian Andoni hasita.

6.4.- Bertso-trama

Formatu berria da hau aurrekoekin alderatuta. Ohiko gai-jartzaitzari buruzko idatzizko teorizazioa eskasa bada, bertso-tramari buruzkoa ez da existitzen. Dagoen "teoria", saioak amaitu ondorengo bertsolari eta tramagileen arteko gogoeta eta autokritika jardunei zor zaie.

Zer da bertso-trama

Egiturari dagokionez, hitzez eta bertsoz harilkatutako ipuina da bertso-trama; fikziozko pertsonaiak, eta hasiera, korapiloa eta amaiera dituen kontakizun progresiboa dira bere ezaugarriak. Ez da bertso-trama tramarik ez daukana. Egin izan dira bertso-trama izenarekin, istorioan progresiorik ez zeukaten bertso saioak. Bertsolariek pertsonaia jakin batzuk gorpuztu behar zituzten eta egoera desberdinetan jartzen zituen gai jartzaileak, baina egoera solteak ziren; bertsoaldi bakoitzetik bestera ez zegoen progresiorik. Trama terminoaren kontra doa hori.

Bertsolaria fikziozko pertsonai baten/batzuen paperean aritu behar duela da beste ezaugarri behinena. Gainerako bertso saio formatuetan, beste baten paperean eta norbere baitatik aritzeko aukerak izaten ditu bertsolariak. Bertso-traman ez! Beste baten paperean aritu behar du beti, fikziozko pertsonai baten baitatik.

Zenbat bertsolari? Zenbat pertsonai?

Bi edo lau bertsolarirekin egindako tramak dira egokienak.

BIKOA: pertsonai nagusi bana atxikiko zaio bertsolari bakoitzari. Istorioak aurrera egin ahala bigarren mailako pertsonaiak agertuko dira, beti pertsonaia nagusietako batekin elkartuko direnak. Kasu hauetan bertsolarietako batek bere pertsonaia nagusiari eutsiko dio eta beste bertsolariak bigarren mailako pertsonaia gorpuztuko du.

LAUKOA: lau bertsolarirekin lan errazagoa eta, aldi berean, askoz zailagoa da. Bertsolari bakoitzak pertsonaia bana izango du istorio osoan zehar. Horregatik, lau pertsonaia, eta ez gehiago, dituen ipuina asmatu beharko dugu. Bertsolarien lana, bertso kopurua, orekatzen saiatu behar da gainera.

Bertsolari gehiagorekin egitea arriskutsua da: pertsonai gehiegi beharko lirateke bertsolari guztiek neurri bertsuan kantatzeko, ipuina larregi luzatu liteke, eta trama behar bezala garatu gabe geratzeko arriskua handia da.

Hiru bertsolarirekin egiteko posibilitatea baztertua hobe. Bikoaren ezaugarriak (zeharkako pertsonaiak) betetzeko zailtasunak ditu nahasmena ekarriko lukeelako, eta laukoarenak (bertsolaria pertsonaia baten jabe da saio osoan) ere ez, hiru pertsonaia ez direlako nahikoa ordu eta laurden/ordu eta erdiko istorio bat kontatzeko.

Bi eta lauko trametan entzuleak beti dauka argi zein den jokoak: bikoan bi pertsonaia nagusi eta zeharkakoak (zeharkako bat azaltzen denean beti mantenduko da nagusietako bat); laukoan are errazagoa da: bertsolari bat = pertsonaia bat.

Tramagilea eta narratzailea = gai jartzailea eta gai-emailea

Istoria ondo pentsatuta eraman behar da. Behintzat bere egitura (egoerak, tramaren progresioa) eta pertsonaia bakoitzaren ezaugarriak. Zertzelada aberasgarriak kontaketarako utzi litezke, bertsolariak zabalduko iturritik edanda.

Istoria asmatzeaz aparte, kontalari lanak ere bete behar dira saioan bertan. Kontalariak ez du protagonismo larregi hartu behar (bertso saio batean gaude), baina ezin du neutroa izan (edo totela, lotsatia, berritsuegia...). Ipuina kontatu behar du, bere hitzak dira haria eta bere jardunak eramango ditu pertsonaiak leku batetik bestera, berak esanda jakingo dugu pertsonaien aldatzearen berri. Narratzaile orojakilea izango da azken batean.

Narratzailearen lana trama osoan garrantzitsua izan arren, hasieran (lehenengo eta bigarren bertsoaldietan normalean) dauka lanik gehien, eta hasieran luzatuko da gehien bere lana. Pertsonaiak aurkeztu behar ditu, ipuineko arazoa aurkeztu behar du... Baina gero ahalik eta gehiena murriztu beharko du bere jarduna.

Saioa luze badoa (bertsolariak gustura ari badira hamar-hamabi bertsoko bertsoaldiak ere egin ditzakete), narratzaileak gai izan behar du trama barruan beharrezkotzat jotzen ez dituen egoerak kentzeko, egoera horiek hitzez adierazi eta jauzia eman.

Bertsolariak = pertsonaiak

Bertsolariak jakin egin behar du bere pertsonaia istorio bateko partaide dela, eta bera dela pertsonaia hori gorpuzten duena. Bere paperetik ateratzeak, eta ipuinetik kanpo dagoen bertsolaria azaleratzeak, kate egingo lioke istorioari.

Hori horrela izanik, oso baliabide eraginkorra da bertsolariak ezagutzen duen informazioa (entzun duelako), baina pertsonaiak ez dakiena bigarren zentzuaz edo galdera bidez erabiltzea. Adibidez: A eta B nagusia eta morroia dira. Morroiak lapurreta egin du etxean baina nagusiak ez daki bere morroia izan denik. Hemen bertsolariak libre dute bigarren zentzurako bidea, baina kontuz ibili beharko dute, morroiak ezin izango dio esan nagusiarri lapurra bera izan dela, ipuina hankaz gora jarri dezakeelako.

Zer kontatu? Nolako tramak egin?

Era guztietako istorioak asma litezke. Hala ere, aurrean edukiko dugun entzuleriak eragina izan dezake erabakian.

Maitasunezko harreman gatazkatsu bat sartzea oso eraginkorra da. Hori trama beraren muina izan liteke edo bestelako gai batean azpitrama.

Heroi bat edo heroi pareak ere komeni da, jendeak norbait behar baitu identifikatzeko.

Gaiztoa (oso gaiztoa edo patuak sortutako gizagaixo petral eta istilu sortzailea): bat edo bi (bigarren hau, adibidez, gaizto nagusiak erakarritakoa, azkenean bihotz oneko azalduko dena... mila modu eta psikologia daude). Lauko trametarako funtsezkoa da gaiztoaren figura.

Tramak klimaxa, tramako une goriena, behar du. Amaieran ia-ia derrigorrezkoa da. Halere, batzutan, amaitzeko antiklimaxa edo barealdia ere egokia izaten da. Amaieran klimaxaz gain, traman zehar beste klimax txiki batzuk ere sor litezke. Komenigarriak dira gainera.

Agertokia, ingurumaria

Gai eztabaidatua da hau. Dekoraturik behar al du bertso-tramak? Ez gara ari agertokia txukuntzeko jar daitezkeen apaingarriez (arrantzarako sareak jarri ziren Zumaian egin zen bertso-trama batean); agertoki txukuna beti da mesedegarri. Bertso-tramaren testuingurua indartu asmoz jar daitezkeen elementu apaingarri baina zurrunez ari gara.

Asmoa pertsonaiak leku eta garai batetik bestera eramatea bada, dekoratu bakar eta zurrun batek ezin du hori islatu. Hitzeko jardun hutsarekin eta inolako apaingarririk gabe, egoerak eta pertsonaiak bere buruan ikusten zituela aitortu izan du maiz jendeak. Beraz tramaren garapen osoa erdiesteko ez da apaingarri beharrik sumatzen. Horrela, gainera, bertsolariaren hitzeko jardunak ohiko protagonismoari eusten dio.

Halere, ez litzateke baztertu behar, argiekin jokatuz esate baterako, oholtzan espazio desberdinak sortzeko aukera.

6.5.- Libreko saioak

Saio mota hauetan, bertsolariak eurak dira saioaren ardatza goitik behera antolatzen dutenak. Baina ez hutsetik hasita, noski. Gai-jartzailea ez bada ere, saioa izango den leku hartan berri-emailerik bat aurkitu beharko dute herrian zer gorabehera dauden, eta beste hainbat xehetasun jakiteko.

OHARRAK

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

GAIK SORTZEKO ITURRIK

Non aurkitu bertsotarako gaien iturria, nola egituratu?

Atal honen hasieran argi utzi nahi dugu honako ideia hau: gaiak sortzeko hainbat bide dira hemen proposatzera goazena. Baina hori bakarrik; ez gehiago, ez gutxiago. Beste era batera esanda, gai-jartzearen eginkizunean urte batzuk darabilzkien jendeak erabili ohi dituen iturrien bilduma da hemen eskaintzera goazena. Eta jakina, aholkuren bat ematekotan, hauxe bururatzeko zaigu: iturri desberdinetatik sortutako gaiak jartzen ahalegindu behar da. Bestela, jaialdian desorekak gertatzeko arriskua egon daiteke. Esate baterako, ezin dugu saio osoa taxutu inguruko erreferentziekin bakarrik. Eta, halaber, ezin da jaialdi osoa eguneroko albisteen inguruan prestatu. Egokiena, sukaldarien antzera, osagai desberdinekin saltsa txukuna sortzea da.

Nola sortu, beraz, bertsotarako gaiak?. Sormen hutsari aterik itxi gabe, ondorengo orrietan dituzue erabiltzen ditugun zenbait bide edo iturri. Iturriak zerrendatu ondoren adibide praktiko bat duzu eta jarraian ariketa bat zeuk, irakurle, burutu dezazun.

1.- Inguruko erreferentziak:

- Egunean zehar ikusia edo gertatua.
- Norberari gertatutakoak, etxeakoak...
- Ingurukoak, lantokikoak, lagunartekoak...
- Bidaietakoak, oporretakoak...
- ...

Adibideak

Erreferentzia: Gaur alabak zera esan dit: aita, lagunekin festara noa eta goiz aldera etorri nire bila.

BINAKA. Gaia: *__A__ aita eta __B__ alaba. Gaur __B__ alabak, horrela esan dio __A__ aitari: aita, halako herritan jaiak dira. Lagunekin harantz noa eta goizeko lauretan etorri nire bila. __A__ hasita hiruna bertso.*

Erreferentzia: Ikastolako atezaina naiz.

BAKARKA. Gaia: *Zu, ikastola bateko atezaina zara. Ikasturte osoa eman duzu 500 haurren zarata, garrasi eta barrabaskeriak jasaten. Gaur hartu dituzte oporrak. Ikastetxe barruan zaude bakar-bakarrik pentsakor.*

Ariketak

Erreferentzia: aireportura joan zara eta greba dute bertako langileek.

BINAKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....
.....

BAKARKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....
.....

2.- Saioa den herriko kontuak

- Herriaren berezitasunak.
- Herriko pertsonaiak.
- Jaiak, ospakizunak, azokak...
- Herriko arazoak, gertakizunak, esamesak, ...
- ...

Adibideak

Erreferentzia: Gernikan da saioa

BINAKA aritzeko. Gaia: *Gernikako azoka berezian, zu __A__, Idiazabalgo gazta saltzen den postuan zaude. __B__ berriz, bueltaka dabil zure inguruan eta dagoeneko, lau aldiz probatu du zure gazta.*

Erreferentzia: Hendaian da saioa

BAKARKA aritzeko. Gaia: *Hendaiako hondartzako garbitzailea zaitugu. Egunsentian lanean hasi eta estreinako bainuzaleak etortzen hasi direnean, zure lanak bukatu eta bazoaz. Zer darabilkizu buruan?*

Erreferentzia: Elgoibarren da saioa

PUNTUKA aritzeko (bi bertsolari). Gaia: *Elgoibarko enpresa bateko langileak zarete. Zuen nagusiak Pariseko feriara bidali zintuzteten makina eta lan-tresnak (herramientak) saltzera. Badira hamabost egun ferria bukatu zela eta oraindik Parisen zabiltzate. Zertan?*

Ariketak

Erreferentzia: Urkiolan (Abadiño) da saioa.

PUNTUKA aritzeko (bi bertsolari) .Gaia:

.....
.....
.....
.....

Erreferentzia. Iruñean da saioa

BIÑAKA aritzeko.Gaia

.....
.....

.....
.....

Gai bera BAKARKA aritzeko:

.....
.....
.....

Erreferentzia. Biasterin da saioa

BAKARKA.Gaia:.....

.....
.....
.....

Gai bera BIÑAKA aritzeko:

.....
.....
.....
.....



3.- Eguneroko albisteak.

- Egunkariak.
- Astekariak.
- Telebista.
- Irratia.
- Beste arteak: literatura, zinema, ...
- Ahoz aho jasotakoak.
- ...

Adibideak

Albistea: Afganistango gerra.

BINAKA aritzeko. Gaia: *Bi amerikar zarete. Dorre Bikien hondakinei begira zaudete. __A__-k, amorru biziz mendekua eskatzen du; __B__-k berriz, arazoak ez direla mendeku bidez konpontzen dio.*

BAKARKA aritzeko. Gaia: *Telebistaz, Afganistango emakumeak aurpegiko estalkiak kentzen ikusi dituzu. Hiru bertso.*

PUNTUKA aritzeko (bi bertsolari). Gaia: *George Bush eta Bin Laden telefonoz hizketan.*

Ariketak

Hautatu egungo hiru albiste, eta bakoitzarekin gaiak moldatu

1. ALBISTEA.

BINAKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....

BAKARKA aritzeko.

Gaia:.....
.....
.....

Hasierako 3 PUNTU 8ko txikian:

.....
.....

2. ALBISTEA.

BINAKA aritzeko. Gaia :

.....
.....
.....

BAKARKA aritzeko.

Gaia:.....

.....
.....

Hasierako 3 PUNTU 8ko txikian:

.....
.....

3. ALBISTEA.

BINAKA aritzeko. Gaia :

.....
.....
.....

BAKARKA aritzeko.

Gaia:.....

.....
.....

Hasierako 3 PUNTU 8ko txikian:

.....
.....



4.- Urte garaia.

- Urtaroen berezitasunak, arazoak, onurak...
- Data seinalatuak.
- Santutegia.
- Eguraldia, ondorioak...
- Aste Santua.
- Gabonak.
- ...

Adibideak

Erreferentzia: San Martin egunean da saioa

BINAKA aritzeko. Gaia: A baserriko atarian txerria hil eta erretzen ari da. B suhiltzailea dator kamioiarekin argiak piztuta eta sirena joaz.

Erreferentzia: Udaberria hasi da

BAKARKA aritzeko. Gaia: 80 urte inguru dituzu. Gaur hasiko da udaberria naturarentzat.

Ariketak

Hautatu DATA SEINALATU BAT eta moldatu gaiak.

BINAKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....

BAKARKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....

Hasierako 3 PUNTU 8ko txikian:

.....
.....

5.- Hitz esanguratsuak.

Hitz esanguratsu batetik abiatuta sortu daitezke gaiak. Hitz bera, esate baterako "ohea", izan daiteke gaia bere horretan. Baina, hitz horrek sujeritzen duenari helduz sor daitezke teman nahiz bakarka aritzeko gaiak.

Adibideak

Erreferentzia: ohea

BINAKA aritzeko. Gaia: *Senar-emazteak zarete. __A__ emaztea, __B__ senarra, etxean altzari berriak sartu nahi dituzue. Emazteak, lehengo ohea nahi du; senarrak, berriz, ohe berria. __A__ hasi eta hiruna bertso.*

BAKARKA aritzeko. Gaia: *zure bi urteko haurrak atzo arte sehaskan egin du lo. Gaur ohean lo egiten duen lehen eguna du. Oraintxe hartu du lo. Berari begira zaude.*

Ariketak

Erreferentzia: burua

BINAKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....

BAKARKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....

Erreferentzia: ilargia

BINAKA aritzeko.

Gaia:.....
.....
.....
.....

BAKARKA aritzeko. Gaia:

.....

6.- Bertsolaria objektuen paperean.

- Lantokiko sirena.
- Kanpaiak.
- Erratza.
- Parkeko bankua.
- Txanpona.
- Argazki kamera.
- ...

Adibideak

Objektua: nortasun agiria

BINAKA aritzeko. Gaia: Zuek nortasun agiri edo identifikazio kartak zarete. A ENA edo Euskal Nortasun Agiria eta B, Espainiako Nortasun Agiria. Biok zaudete pertsona beraren karteran.

Objektua: herriko parkeko bankua

BAKARKA aritzeko. Gaia: Herriko parkean zauden banku bat zara. Asteburuetan zure inguruan gertatzen denaren berri kontu iezaguzu.

Ariketak

Objektua: kanpatorreko erlojua.

BAKARKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....

BINAKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....

7.- Bertsolaria pertsonaien paperean.

- Medikua.
- Politikoa.
- Uharteko naufragoa.

- Txirrindularia.
- ...

Adibideak

Pertsonaiak: erregina eta printzesa

BINAKA aritzeko. Gaia: Zu A printzesa zaitugu eta B erregina. Printzesa, zure lagunek asteburu honetan, festa batera gonbidatu zaituzte. Zuk joan nahi zenuke baina erreginak ez dizu baimenik ematen. A hasita hiruna bertso.

Pertsonaia: Guardia Zibila

BAKARKA aritzeko. Gaia: Euskal Herrian hainbat urte pasa ondoren, zeure herrira itzultzera zoazen Guardia Zibila zara. Burgosko mugan agurra egitea erabaki duzu.

Ariketak

Pertsonaiak: Aita Santua eta bere laguntzailea

BINAKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....

PUNTUKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....

Pertsonaia: Aita Santua

Hasierako 3 PUNTU 8ko txikian:

.....
.....

8.- Bertsolaria animalien paperean.

- Hartza: generikoa, leku edo arraza jakinekoa...
- Putrea: generikoa, leku edo arraza jakinekoa...
- Lehoia: oihanekoa, zirkokoa...
- Arratoia: generikoa, toki jakinekoa, laborategikoa...
- Etxeko abereak.
- Babestutako animaliak.
- ...

Adibideak

Animalia: arraina

BINAKA aritzeko. Gaia: Zuek biok sarean eroritako bi arrain zarete. __A__ handia delako kaxara bota dute. __B__ berriz, neurririk ematen ez duelako berriro uretara.

Animalia: zezena

BAKARKA aritzeko. Gaia: Zezen plaza inguruko belaze batean larrean dabilen zezena zara. Zauden lekutik "Ole!" eta txalo zaparrada latzak entzuten dituzu.

Ariketak

Animalia: Gorbeako otsoa

BINAKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....

BAKARKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....

9.- Fikziozko egoerak edo xelebrequeriak.

- Amona kantzontziloak josten eta...
- Komun mugikorra eta garabia...
- Gai umoretsuak, "berde" kontuak...
- Umore beltza, zerua/infernua...

Adibideak

Erreferentzia: bizirik lurperatu

BINAKA aritzeko. Gaia: Zu __A__, hiltzat eman eta gaur lur eman dizute, Zeure onera etorri zara ordea hilkutxa barruan. Patrikan aurkitu duzu sakelako telefonoa eta __B__ emazteari deitu diozu.

Erreferentzia: etxeko giltzak galdu

BAKARKA aritzeko. Gaia: Gurasoak kanpoan direla aprobetxatuz, neska-laguna hartu eta etxera joan zara. Atea irekitzen hasi zarenean konturatu zara giltzak falta dituzula.

Erreferentzia: bi langile eta erreminta bakarra

PUNTUKA aritzeko. Gaia: Bi kaminero zarete, bide bazterrak garbitzeko asmoan. Nonbait, zuen arduraduna deskuidatu egin da eta aitzur bakarra utzi dizue lanerako.

Ariketak

Erreferentzia: Aladino eta kriselua

BINAKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....

BAKARKA aritzeko. Gaia:

.....
.....
.....

10.- Beste saioetako gaiak aztertu, aldaketak egin eta egokitu.

- Txapelketako gaiak.
- *Bapatean* liburu bildumakoak.
- Edonon entzun edo jasoak.

Adibideak

GAI ZAHARRA. Bakarka aritzeko: Jadanik, ez da **amodiozko gutunik** idazten. Zu hamaikatxo idatzia zara. Konta zure oroitzapenak.

GAI BERRIA. Binaka aritzeko egokitua: Zu __A__ kartzelatik ateratzera zoazela, __B__ presozaínak urteetan eman ez zizkizuten **amodiozko gutunak** eman dizkizu.

GAI ZAHARRA. Binaka aritzeko: Aita-semeak zarete; __A__ aitak, jubilatut den egunean __B__ semearen logelan utzi du **iratzargailua**.

GAI BERRIA. Bakarka aritzeko egokitua: **Iratzargailua** zaitugu. Konta iezaguzu astean zehar zure txirrina entzutean sumatzen dituzun jokaera desberdinak.

Ariketak

Goian erabilitako gaiak hartu eta moldatu beste batzuk

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

BIBLIOGRAFIA

Liburuak eta aldizkariak:

AMURITZA, Xabier; *Bertsolari*, 18.zb., 1995eko maiatza, 29 or.
AMURITZA, Xabier; *Nazioarteko Eusko Ikaskuntzaren aldizkaria*, 1987, 32. lib., 25–43 or.
AZKUNE, Laxaro; *Larrun*, 2000ko azaroa, 38. zb., 21. or.
EGAÑA, Andoni; *JAKIN*, 75. zb., 1993ko martxoa–apirila, 22. or.
GARTZIA, Joxerra; *Bertsolari*, 18. zb., 1995eko maiatza, 47. or.
TORREALDAI, Joan Mari; *JAKIN*, 44. zb., 1987ko uztaila-iraila.
URKIZU, Patri; *Bertsolaritzaren Historia*, ETOR; Donostia, 1991.

Web orriak:

<http://www.geocities.com/Vienna/Choir/1237/bertso.htm>
<http://www.bertsozale.com>